

## SEANCE DU CONSEIL MUNICIPAL DU 31 AOUT 2017

### 2017ko AGORRILAREN 31n egin HERRIKO KONTSEILUAREN BILKURA

#### Présents / Hor zirenak : 11

Mmes BARBIER, ECHEVERTZ, ETCHART-DUHALDE, ETCHEVERRY, GARY, OXARANGO  
MM. GASTAMBIDE, BARNETCHE, ETCHEBERRY, ETCHEGARAY, HERNANDEZ.

#### Absents excuses / Ezin etorria jakinarazia zutenak : 2

MM. BISCAY, SOULIGNAC.

#### 1 : NOM ET LOGO DU SIVU DU REGROUPEMENT PEDAGOGIQUE D'AYHERRE ET D'ISTURITS

Le Maire rappelle à l'assemblée que par délibération en date du 15/04/2017, elle a conjointement décidé de demander la création d'un Syndicat de regroupement pédagogique avec la Commune d'Isturits et a approuvé les projets de statuts qui lui ont été présentés. M. le Préfet a validé le SIVU du regroupement pédagogique d'Ayherre et d'Isturits ainsi que les statuts le 17/07/2017.

Il indique cependant que le nom du Syndicat n'avait alors pas été choisi. Après plusieurs échanges avec le Maire de la Commune d'Isturits, la dénomination suivante a été proposée : BIGABAT ainsi que le logo.

Il invite l'assemblée à se prononcer sur cette proposition.

**Le Conseil Municipal**, ouï l'exposé du Maire et après en avoir largement délibéré,

- **décide** d'approuver la dénomination de Syndicat BIGABAT pour lequel il a conjointement demandé la création avec la Commune d'Isturits ainsi que le logo,
- **charge** M. le Maire de notifier la présente délibération au Maire de la Commune d'Isturits, ainsi qu'à Monsieur le Préfet des Pyrénées-Atlantiques.

#### 2 : ELECTION DES DELEGUES DU SIVU BIGABAT

Le Maire rappelle à l'assemblée que les statuts du Syndicat BIGABAT prévoient que la Commune d'Ayherre dispose de 3 délégués titulaires et 3 délégués suppléants.

Il précise qu'en application de l'article L.5211-7 du Code Général des Collectivités Territoriales, les délégués du syndicat de communes sont élus par le Conseil Municipal de chaque commune membre au scrutin secret et à la majorité

#### 1: AIHERRA ETA ISTURITZE HERRIARTEKO PEDAGOGIA MULTZOAREN (HPM) XBHS-REN IZENA ETA LOGOTIPOA

2017/04/15eko deliberoaren ondorioz, Auzapez jaunak biltzarrari Herriko Kontseiluak Isturitzeko herriarekin Herriarteko pedagogia multzoaren Xede Bakarreko Herriarteko Sindikatua (XBHS) sortzea galdegin zuela eta aurkeztu zitzaizkion estatutu proiektuak onartu zituela oroitarazten dio. Prefeta jaunak Aiherra eta Isturitze Herriarteko Pedagogia Multzoaren XBHS eta 2017/07/17ko estatutuak onartu ditu.

Bizkitartean, adierazten du orduan ez zutela Sindikatuaren izena hautatu. Isturitzeko auzapezarekin mintzatu ondoan, izen hau eta horren logotipoa proposatuak izan dira: BIGABAT.

Herriko Kontseiluari proposamenari buruzko iritzia agertzea galdegiten dio.

**Herriko Kontseiluak**, Auzapez jaunaren azalpenak entzun eta eztabaidatu ondoan,

- Isturitzeko herriarekin sortu nahi izan duen BIGABAT Sindikatuaren izena eta horren logotipoa onartzea **deliberatzen du**,
- Isturitzeko Auzapezari eta Pirinio Atlantikoetako prefetari delibero horren berri emateko **ardura** Auzapez jaunari **ematen dio**.

#### 2: BIGABAT XBHSren ORDEZKARIEN HAUTAKETA

Auzapez jaunak biltzarrari BIGABAT Sindikatuko estatutuek Aiherrako herriak 3 ordezkari titular eta 3 ordezko ordezkari izan behar dituela zehazten dutela oroitarazten dio.

Lurralde Elkargoen Kode Orokorreko L.5211-7 artikulua aplikazioaren ondorioz, sindikatuko herrietako ordezkariak sindikatuaren parte diren herri bakoitzeko Herriko Kontseiluak hautatzen dituela zehazten du, sekretupeko bozketa bidez eta gehiengo

absolue<sup>1</sup>. Si, après deux tours de scrutin, aucun candidat n'a obtenu la majorité absolue, il est procédé à un troisième tour de scrutin et l'élection a lieu à la majorité relative. En cas d'égalité de suffrages, le plus âgé est déclaré élu.

Le Maire invite en conséquence l'assemblée à élire ses délégués titulaires et suppléants.

**Le Conseil Municipal**, ouï l'exposé du Maire et après en avoir largement délibéré,

- **décide** de procéder à l'élection de 3 délégués titulaires pour siéger au sein du Comité syndical du Syndicat BIGABAT.

Les opérations de vote étant achevées, il est procédé au dépouillement des bulletins et il est proclamé les résultats ci-après :

Délégués titulaires :  
Délégués suppléants :

- GASTAMBIDE Arño
  - BARBIER Leire
- ECHEVERTZ Chantal
  - ETCHART-DUHALDE Maite
- HERNANDEZ Frédéric
  - ETCHEVERRY Sabine

Les intéressés ont déclaré accepter d'exercer ces fonctions.

### 3 : CREATION EMPLOI ADJOINT D'ANIMATION

Le Maire propose au Conseil Municipal la création d'un emploi permanent à temps non complet d'adjoint d'animation pour assurer l'encadrement et l'animation des enfants durant les temps scolaire et périscolaire. Il précise que le SIVU du RPI d'AYHERRE et d'ISTURITS n'étant pas encore opérationnel, il revient à la Commune de créer cet emploi nécessaire au fonctionnement du RPI dès la rentrée 2017.

La durée hebdomadaire moyenne de travail serait fixée à 24 heures

Cet emploi appartient à la catégorie hiérarchique C.

Cet emploi permanent pourra être pourvu :

- par le recrutement d'un fonctionnaire appartenant aux cadres d'emplois des adjoints d'animation territoriaux en application du principe général posé à l'article 3 de la loi n°83-634 du 13 juillet 1983 portant droits et obligations des fonctionnaires selon lequel, sauf dérogation prévue par une disposition

absolutuan<sup>1</sup>. Bi bozketa itzuli eta gero, hautagai batek ere ez badu gehiengo absolutua eskuratu, hirugarren itzuli bat antolatu behar da eta hautaketa gehiengo erlatiboan egiten da. Boz berdinketaren kasuan, hautagai zaharrena hautatuko da.

Ondorioz, Auzapez jaunak biltzarrari bere ordezkari titularrak eta ordezko ordezkariak hautatzea galdegiten dio.

**Herriko Kontseiluak**, Auzapez jaunaren azalpenak entzun eta eztabaidatu ondoan,

BIGABAT Sindikatuaren Sindikatu batzordean aulkia ukanen duten 3 ordezkari titularrak bozketa bidez hautatzea **deliberatzen du**.

Bozkatzea egin ondoan, boz zenbaketa egin eta honako emaitzak jakinarazi dira:

Ordezkarititularrak:  
Ordezko ordezkariak:

- Arño GASTAMBIDE
  - Leire BARBIER
- Chantal ECHEVERTZ
  - Maite ETCHART-DUHALDE
- Frédéric HERNANDEZ
  - Sabine ETCHEVERRY

Denek funtzio horiek betetzea onartu dute.

### 3: ANIMAZIO LAGUNTZAILE ENPLEGU BATEN SORTZEA

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari lanaldi partzialeko animazio laguntzaile enplegu iraunkor baten sortzea proposatzen dio. Langileak eskolaldi inguruko eta eskolaldiko denboretan haurrak zaintzeko eta animazioa segurtatzeko ardurak izanen du. Aiherra eta Isturitze Herriarteko pedagogia multzoaren (HPM) Xede Bakarreko Herriarteko Sindikatua (XBHS) ez denez oraindik osatua, 2017ko sartzetik beretik HPMren funtzionamendurako beharrezkoa den enplegu horren sortzea Herriko Etxearen gain dela zehazten du.

banabestean asteko 24 oreneko lanordua izanen litzateke

C kategoriako enplegua litzateke.

Enplegu iraunkor hori gisa horretan betetzen ahalko da:

- Funtzionarioen eskubideak eta betebeharrak zehazten dituen 1983ko uztailaren 13ko 83-634 zenbakidun legearen 3. artikulua jarritako printzipio orokorra aplikatuz (zeinaren arabera, lege xedapen batek aurreikusitako salbuespena salbu,

<sup>1</sup> Le choix du conseil municipal peut porter sur tout citoyen réunissant les conditions requises pour faire partie d'un conseil municipal, sous réserve des dispositions du deuxième alinéa du II de l'article L. 5211-7.

<sup>1</sup> Herriko Kontseiluak Herriko Kontseiluan izateko baldintzak betetzen dituen herritar oro hautatzen ahal du, L. 5211-7 artikulua II zatiko bigarren ataleko xedapenak beteko direlako baldintzarekin.

législative, les emplois civils permanents des départements, des communes et de leurs établissements publics à caractère administratif sont occupés soit par des fonctionnaires,

- par dérogation, par le recrutement d'un agent contractuel, en application des dispositions de l'article 3-2 de la loi n° 84-53 du 26 janvier 1984 modifiée relative au statut de la fonction publique territoriale, qui permet, le recrutement d'agents contractuels pour faire face à une vacance temporaire d'emploi dans l'attente du recrutement du fonctionnaire.

Le contrat de travail est alors conclu pour une durée déterminée qui ne peut excéder un an. Sa durée peut être prolongée, dans la limite d'une durée totale de deux ans, lorsque la procédure de recrutement pour pourvoir l'emploi par un fonctionnaire n'a pu aboutir.

Dans l'hypothèse du recrutement d'un agent contractuel, l'emploi pourrait être doté du traitement afférent à l'indice brut 347.

Après avoir entendu le Maire dans ses explications complémentaires et après en avoir délibéré, le **Conseil Municipal**,

- **décide** la création à compter du 4 septembre 2017 d'un emploi permanent à temps non complet d'adjoint d'animation représentant 24 h de travail par semaine en moyenne, et ce, pour une durée déterminée qui ne peut excéder un an ; que cet emploi pourra être pourvu par le recrutement d'un contractuel, cet emploi sera doté du traitement afférent à l'indice brut 347,
- **autorise** le Maire à signer le contrat de travail proposé,
- **précise** que les crédits suffisants sont prévus au budget de l'exercice.

**4 : CREATION AIRE DE JEUX ET DE LOISIRS  
DANS LE CADRE DE L'AMENAGEMENT DU  
BOURG - DEMANDE DE SUBVENTIONS (ETAT,  
DEPARTEMENT)**

Monsieur le Maire rappelle au Conseil Municipal que le projet de création d'une aire de jeux et de loisirs s'inscrit dans la continuité de l'aménagement du centre bourg.

Il est à noter que le bourg a connu ces dernières années une évolution spectaculaire avec la création de la place fronton, l'implantation de deux commerces, un restaurant et une boulangerie, s'articulant autour de la mairie, de l'école avec en toile de fond l'église. Un cœur de village typique qui recommence à s'animer ; il est devenu un lieu de vie, de rencontres. Un projet de lotissement de 12 lots à bâtir et une résidence de 6 logements, en contrebas de la place viennent conforter ce centre bourg. Le permis d'aménager a été obtenu et les travaux de viabilisation devraient démarrer prochainement sous l'égide de l'Office 64 de l'habitat.

departamenduetako, herrietako eta izaera administratiboa duten beren eraikin publikoetako enplegu zibilak funtzionarioek betetzen dituzten), lurraldeko animazio laguntzaileen enplegu-esparruari dagokion funtzionario bat kontratatuz,

- baimen bereizi baten bidez, lurraldeko funtzio publikoaren estatutuari dagokion 1984ko urtarrilaren 26ko 84-53 zenbakidun legearen 3-2 artikuluko xedapenak aplikatuz (funtzionario bat kontratatu anartean bete beharreko enplegu bati aurre egiteko kontratupeko langileak kontratatze bidea ematen duena), kontratupeko langile bat kontratatuz.

Orduan, iraupen mugatuko lan kontratua izenpetzen da (urte bat gehienez). Gero, enplegua funtzionario batek betetzeko prozedurak ondorio onik ematen ez badu, kontratuaren iraupena luza daiteke, eta, gehienez, orotara bi urteko iraupena izan dezake.

Kontratupeko langile baten kontratatzearen kasuan, enplegua 347 indize gordinari dagokion tratamenduaz doha daiteke.

**Herriko Kontseiluak**, Auzapezaren azalpen osagarriak entzun eta eztabaidatu ondoan,

- 2017ko irailaren 4tik goiti lanaldi partzialeko animazio laguntzaile enplegu iraunkor baten sortzea **deliberatzen du**. Langileak bana bestean asteko 24 oreneko lanaldia izanen du. Iraupen mugatuko lan kontratua izenpetzen da: urte bat gehienez; lanpostua kontratupeko langile batek betetzen ahalko du eta enplegua 347 indize gordinari dagokion tratamenduaz dohatuko da,
- Auzapez jauna proposatutako lan kontratua izenpetzera **baimentzen du**,
- finantza aldiko aurrekontuan enplegu horren sortzeko kreditu aski badela **zehazten du**.

**4: HERRIAREN ANTOLAKETAREN PARTE GISA  
JOSTALEKU ETA AISIALDI TOKI BATEN SORTZEA  
- DIRU LAGUNTZA GALDEA  
(ESTATUA, DEPARTAMENDUA)**

Auzapez jaunak jostaleku eta aisialdi toki baten sortzeko proiektua herri barnearen antolamenduaren segidaren parte bat dela oroitarazten dio Herriko Kontseiluari.

Azken urteetan herri barneak bilakaera ikusgarria bizi izan duela ohartarazten du. Herriko Etxearen eta eskolaren inguruan, eliza gibelean delarik, pilota plaza sortua izan da, eta bi saltegi, jatetxe bat eta okindegi bat finkatu dira. Berpizten hasten den herri baten bihotza da. Bizi eta kausitze lekua bilakatu da. Plazaren beheko aldean, eraikitzeko diren 12 etxe lekuz eta 6 bizitegiko eraikin batez osatutako etxe multzo proiektuak herri barnea indartuko du. Etxe egiteko baimena eskuratua izan da, eta, Office 64 de l'habitat erakundearen gerizan, eraikuntzarako egokitze lanak laster hasiko dira.

Le projet de création de l'espace de jeux et de loisirs vient donc parfaire et harmoniser l'ensemble.

Il rappelle que ce projet se situe en lieu et place de la maison « Elizaldia » que la Commune a acquis par le biais de l'EPFL Pays Basque. Cette bâtisse en état de délabrement avancé et le talus la jouxtant traité sommairement dévalorisent une façade du bourg en laissant un goût d'inachevé. Elle sera donc démolie pour laisser place à un lieu propre, destiné aux loisirs et jeux ouvert à toutes les générations. Ce sera un espace de transition entre l'extension urbaine projetée et la place-fronton avec la mairie, l'école et ses commerces.

Il revient également sur la volonté de la municipalité de conserver et d'ancrer la mémoire de la maison « Elizaldia » en mettant en valeur des empreintes, des petites parties pouvant être converties et retrouver un sens dans les usages futurs du lieu. Ces portions du patrimoine restauré trouveront donc une seconde vie.

La note de préprogramme du CAUE et le projet d'aménagement établi par le maître d'œuvre décrivent l'ensemble du projet. Le dossier de demande de subvention a été réalisé et la dépense a été évaluée à 151 457.50 € HT. Il convient maintenant de solliciter de l'Etat et du Département le maximum de subventions possible pour ce projet.

**Le Conseil Municipal**, après avoir consulté le dossier, entendu Monsieur le Maire dans ses explications complémentaires et en avoir délibéré,

- **approuve** le projet de création d'une aire de jeux et de loisirs dans la poursuite de valorisation et de redynamisation du centre bourg,
- **sollicite** de l'Etat et du Département le maximum de subventions possible pour ce type d'opération,
- **précise** que le financement de cette opération pourrait être réalisé en complément sur fonds libres suivant le plan de financement indiqué dans la notice de présentation du dossier de demande de subvention.

#### 5 : INCORPORATION ET CLASSEMENT DANS LA VOIRIE COMMUNALE DE LA VOIE PRIVEE SISE AU LIEU-DIT LAKOA

Le Maire expose à l'assemblée que les propriétaires riverains de la voie privée sise au-lieu dit « Lakoa », quartier Minhotz, demandent son incorporation et son classement dans la voirie communale.

Le Maire ajoute que cette voie appartient à la succession de M. DUBROCA Pierre et est cadastrée section A n° 1058, d'une superficie de 629 m<sup>2</sup>.

Il précise que l'accord des riverains a été obtenu et que ces derniers s'engagent à verser à la

Jostalekuaren eta aisialdi tokiaren sortzeko proiektuak guzia ederki osatuko du.

Proiektu hau Herriko Etxeak Euskal Herriko EPLF egituraren bidez erosi zuen « Elizaldia » etxearen lekuan eginen dela oroitarazten du. Etxe hau arras egoera txarrean da eta mugakide duen ezponda larrilarrria tratatua da. Horrek leku hori bururatu gabe utzi delako irudipena ematen du. Horregatik, etxea suntsitu eta belaunaldi guziendako jostaleku eta aisialdi toki garbi batekin ordezkatu da. Pentsatutako hiriaren hedapenaren eta Herriko Etxea, eskola eta saltegiak biltzen dituen herriko plazaren arteko trantsizio lekua izanen da.

Herriko Etxeak « Elizaldia » etxearen memoria atxikitzeko eta errotzeko xedea berriz aipatzen du ere, herexak balioan emanez, adibidez etxearen zati ttipiak beste balio batera bihurtuz eta lekuaren etorkizuneko erabilpenean zentzu bat emanez. Hala, zaharberritu ondarearen zati horiek bigarren bizi bat ukanen lukete.

CAUE erakundearen aitzin programaren oharrak eta obralariak egin antolamendu proiektuak proiektu osoa deskribatzen dute. Diru laguntza galdetzeko txostena bete izan da eta gastuak zergarik gabeko 151 457.50 eurokoak direla balioztatu da. Orain, estatuari eta departamenduari, proiektu horrentzat ahalik eta diru laguntza gehien galdetu behar zaizkie.

**Herriko Kontseiluak**, txostena begiratu, Auzapez jaunaren azalpenak entzun eta eztabaidatu ondoan,

- herri barnearen balioa agerian ematen eta berpizten segitzeko jostaleku eta aisialdi toki baten sortzeko proiektua **onartzen du**,
- estatuari eta departamenduari egitasmo horrentzat ahalik eta diru laguntza gehien **galdetzen die**,
- diru laguntza eskaera txostenaren aurkezpen oharrean azaldutako finantzamendu planoaren arabera, egitasmo hau diru funts libre osagarriekin finantza daitekeela **zehazten du**.

#### 5: LAKOA IZENEN LOKUAN DEN BIDE PRIBATUA HERRIKO BIDEETAN SARTZEA ETA SAILKATZEA

Minhotz auzoko « Lakoa » izeneko lekuan bizi diren bide pribatuko jabeek bide hau herriko bideetan sartzea eta sailkatzea galdegiten dutela azaltzen dio Auzapez jaunak biltzarrari.

Bide hau Pierre DUBROCA jaunaren ondokoena dela, 1058 zenbakidun A eremuan kadastratua dela eta 629 m<sup>2</sup>ko hedadura duela gehitzen du Auzapez jaunak.

Tokiko bizitzaileak akort direla eta obren ondotik egin beharreko lanak egin ditzan herriari

Commune une somme de 2015.00 euros afin qu'elle réalise les travaux de remise en état nécessaires une fois l'ouvrage intégré à la voirie communale.

Le Maire demande au Conseil Municipal de se prononcer sur cette opération.

**Le Conseil Municipal**, ouï l'exposé du Maire et après en avoir largement délibéré,

- **prend** en considération le projet d'incorporation et de classement dans la voirie communale de la voie privée sise au lieu-dit « Lakoa », quartier Minhotz,
- **charge** le Maire de procéder aux démarches nécessaires à cette opération, notamment de soumettre le projet à l'enquête publique.

**6 : INCORPORATION ET CLASSEMENT DANS LA VOIRIE COMMUNALE DE LA VOIE PRIVÉE SISE AU LIEU-DIT COSTA**

Le Maire expose à l'assemblée que les propriétaires riverains de la voie privée sise au lieu dit « Costa », quartier Erketa, demandent son incorporation et son classement dans la voirie communale.

Le Maire ajoute que cette voie appartient aux propriétaires riverains et est cadastrée section B n° 771 et 1188, d'une superficie de 1144 m<sup>2</sup>.

Il précise que l'accord des riverains a été obtenu et que ces derniers s'engagent à verser à la Commune une somme de 5352.00 euros afin qu'elle réalise les travaux de remise en état nécessaires une fois l'ouvrage intégré à la voirie communale.

Le Maire demande au Conseil Municipal de se prononcer sur cette opération.

**Le Conseil Municipal**, ouï l'exposé du Maire et après en avoir largement délibéré,

- **prend** en considération le projet d'incorporation et de classement dans la voirie communale de la voie privée sise au lieu-dit « Costa », quartier Erketa,
- **charge** le Maire de procéder aux démarches nécessaires à cette opération, notamment de soumettre le projet à l'enquête publique

2015.00 euro ordaintzera engaiatzen direla zehazten du.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari egitasmo honi buruzko iritzia agertzea galdegiten dio.

**Herriko Kontseiluak**, Auzapez jaunaren azalpenak entzun eta eztabaidatu ondoan,

- Minhotz auzoko « Lakoa » izeneko lekuan diren bide pribatuak herriko bideetan sartzeko eta sailkatzeko xedea **kontuan hartzen du**,
- Auzapez jaunari egitasmo horren burutzeko beharrezkoak diren desmartxak egiteko **ardura ematen dio**, eta, bereziki, proiektuaren inkesta publikoa aurkeztearena.

**6: KOSTA IZENeko LEKUAN DEN BIDE PRIBATUA HERRIKO BIDEETAN SARTZEA ETA SAILKATZEA**

Erketa auzoko « Kosta » izeneko lekuan bizi diren bide pribatuko jabeek bide hau herriko bideetan sartzea eta sailkatzea galdegiten dutela azaltzen dio Auzapez jaunak biltzarrari.

Bide hau tokiko bizitzailearena dela, 771 eta 1188 zenbakidun B eremuan kadastratua dela eta 1144 m<sup>2</sup>ko hedadura duela gehitzen du Auzapez jaunak.

Tokiko bizitzaileak akort direla eta obren ondotik egin beharrekotan egin ditzan herriari 5352.00 euro ordaintzera engaiatzen direla zehazten du.

Auzapez jaunak Herriko Kontseiluari egitasmo honi buruzko iritzia agertzea galdegiten dio.

**Herriko Kontseiluak**, Auzapez jaunaren azalpenak entzun eta eztabaidatu ondoan,

- Erketa auzoko « Kosta » izeneko lekuan diren bide pribatuak herriko bideetan sartzeko eta sailkatzeko xedea **kontuan hartzen du**,
- Auzapez jaunari egitasmo horren burutzeko beharrezkoak diren desmartxak egiteko **ardura ematen dio**, eta, bereziki, proiektuarentzat inkesta publikoa aurkeztearena.